

Torturatu gintuztenen zigorgabetasunaren aurrean

Malkoak, barne minak eta ezinak hartu gintuen pasa den astean Espainiako Auzitegi Nazionalen Poliziak eta Guardia Zibilak egin zizkigun torturen berri eman behar izan genuenean. Gure hitza ez da tortura salaketa horien oinarri bakarra izango. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoaren Istanbul Protokoloaren arabera froga perizialak aurkeztuko ditugu.. Gainera, agerikoa da torturarik ez balitz gure burua ez genuela errudun joko eta are gutxiago gure lagunak salatuko. 2009ko azaroan atxilotu gintuztenetatik 30ek sufritu genuen tortura gure azalean.

Datorren ostegunean gu torturatu gintuztenek deklaratuko dute Espainiako Salbuespen auzitegi horretan. Izugarrikeria iruditzen zaigu gure tortura salaketak oraindik argitu ez direnean torturatzailen hitza auzitegi batean entzun ahal izateari. Baina are izugarrikeria nabarmenagoa da tortura ekiditeko nazioarteko arauak betetzen ez dituen Espainian torturatzailen hitzak balioa izatea. Onartezina da torturak zigorgabetasun osoan jarraitzen duen bitartean bera burutzen duten poliziek auzitegi batean Zuzenbide Estatuaren izenean deklaratzeko. Ezin dugu onartu.

Orain 40 urte arte Espainiako Estatuan izandako torturen argipenean Argentinako auzitegi batek eman behar izan du urratsa eta aztoratu dira espainiar hedabideak horregatik. Aldi berean, gure testigantza ematen ari garelarik, ordea, beste alde batera dira gehienak... 40 urte itxaron behar al ditugu azken hiru hamarkadetan torturatu gaituzten milaka euskal herritarren egia ikertu, aztertu eta zigortu dadin?

Estrasburgeko Giza Eskubideen Auzitegiak aste honetan berretsi du 197/2006 doktrina legez kanpokoa dela. Auzitegi horrek berak ere esan du Espainiak ez dituela torturak ikertzen. Espainiak ez du tortura ekiditeko gutxienerako neurririk betetzen, ez ditu torturak ikertzen, ikertzen dituen kasuetan artxibatu egiten ditu kasuak gehienetan, eta zigorrak direnetan indultua ematen die Espainiako Gobernuak. Torturaren zigorgabetasunerako babes katea da hori: inkomunikazioa poliziak torturatu ahal dezan, ikerketa eza edo ikerketa ahulak auzitegien aldetik zigorrik izan ez dadin, eta Gobernuaren indultuak ezkutatu ezin diren kasuetan torturatzailen zigorrik bete behar izan ez dezaten.

Babes kate horrek erakusten digu torturatu gintuztenak ez direla soilik ostegunetik aurrera deklaratuko duten ilea atzeraka gominaz zuen potolo hura, 1,80 inguru zuen azal iluneko ile motzeko hura edo rastak zituen gaztea... Torturatu gintuena Estatu da, eta horregatik eraiki dute torturaren inguruko babes kate hori, tortura Estatu erabakia delako, eta bera etetea ere hala izango da.

Ezin dugu onartu 2013ko urrian gure militantziagatik gutxienez 6 urteko espetxe zigorra ezarri nahi diguten epaiketa batean torturatzailen zigorgabetasuna. Guk, torturatuok, torturatzailen entzun behar al ditugu gure aurkako akusazioak botaz? Guk, torturatuok, onartu behar al dugu torturatzailen zigorgabetasuna babesten duen epaitegi baten pasibotasuna?

Estatuaren biolentzia gure azalean sufritu dugun arren, Euskal Herrian ireki den aro berriaren alde gogor ari gara lanean gu ere, konponbidearen mesedean behar diren urrats denak emanez, baina biolentzia batzuen berri zehatz-mehatz ematen den bitartean, beste batzuk ezkutuan eta Estatu aparatuek, eta anparauek, babestuta jarraitzen dute.

Tortura kasu guztiak ikertu behar dituzte, tortura posible izan ez dadin nazioarteko arauak bete behar ditu Espainiak... eta hala ez den bitartean guk ez dugu onartuko gure torturatzailen adierazpenik epaitegian. Hori da ostegunean izango dugun jarrera.